

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera zerbitzu bat eskaintzea da. Diseinu pertsonalizatu batekin egindako gure aplikazioan, planetari eta norberari onura egingo dion bizimodu bat eramateko jarraitu beharreko pausoak eskaintzen dira.

Gure enpresaren kasuan, ez dugu webgunerik, enpresa bera aplikazio bat delako. Bezeroak bertan aurki dezake aplikazioari buruzko informazio guztia. Horregatik, garrantzitsua da *app*-a ondo antolatuta egotea hori delako dugun plataforma bakarra.

